

Internet en irristatzen

irristatzen@egunkaria.com

jabi zabala

Futbolzale eta militanteak

Sarea eta futbola zaletasun, arrazakeria etsai

Ideologia, zaletasuna, irudi bitxiak... denetarik erakusteko, peña edo antzeko zale talde gehienek badute webguneren bat edo beste. Guztietan badago sarean ibilitako norbait... eta webgunearen arduradun bihurtzen da.

Beste hainbat kontutan bezala, futbolari buruzko webguneetan nahasmen handia dago webgune ofizial eta ez ofizialen artean, eta batzuetan izan da gatazkarik. Esaterako, Athletic taldeari ez zitzaion batere gustatu bere webgune ofiziala Miami lagun batena baino geroago jartzea eta kaxkarra goa izatea. Noski, Fernando izeneko athleticzale amorratuak denbora dezente zerman informazioa, irudiak eta soinuak biltzen

eta haiei forma ematen, zeren webgune bat egiteak diseinurako dohaia eskatzen baitu eta azpi-direktorioen egitura egokiak sortzea.

Beste adibide bat Nikoren webgunea dugu. MCD rock taldeko kidea ordenagailuekin eta diseinuarekin lan egiten ohituta dago. Grafista da ETBn, eta irudiarekin eta diseinuarekin lotutako hainbat lan egiten ditu. Horretaz gain, athleticzale porrokatua ere bada, eta berak egindako webguneak klubaren ofiziala gaintzen du diseinu eta edukien aldetik. Bertan badu bere txokoa Herri Norte Taldeak. Talde honek Antiltra izeneko berripaper bat argitaratzen du, eta arrazakeriaren aurkako kontzertuak antolatu ditu.

HNT taldekoek webgunean erakusten duten marrazkia David Morenok egin du, Palante webgunearen arduradunak. Arrazakeriaren aurka aritzen diren futbolzale eta bestelakoen informazio dezente biltzen du bertan, bai eta lotura batzuk ere. Balantzaren beste aldean, talde ultra eta arrazistak ditugu, baina horiek hurrengorako utziko ditugu.



Helbideak

Athletic Miamitik

■ <http://www.ece.miami.edu/~fernando>

Palante!

■ <http://members.tripod.com/~Pakito/>

Herri Norte Taldea

■ <http://www.euskal.com/athletic/HNT.html>

Inder Gorri

■ <http://web.jet.es/gudari/futbol.html>

El Glorioso

■ <http://www.glorioso.net/>

Erakusketak

Goiko ■ Passia. Zurpeta garaikidea eta eskultura landuko du Goikok erakusketa honetan. Hilaren 17a bitartean izango da zabalik, Victor Hugo etxean.

Altare ■ Andoain. Arias Aragonek eginiko Altare izeneko argazki erakusketa ikusgai dago Andoaingo Itzala taberna berrian. Urri osoan egongo da irekita.

Hitzaldiak

Ijitoen kultura ■ Bilbo. Ijito ekimenerako kide batek ijitoen kulturari buruzko hitzaldia eskainiko du gaur, osteguna, arratsaldeko 19:30etan, Deustuko Gazte Lokalean.

Lehiaketak

Gaba Beltza Herio Ipuin Lehiaketa ■ Mutriku. Bigarren urtez, Gaba Beltza Herio Ipuin Laburren Lehiaketa antolatu dute Mutriku. Herioren inguruko ipuinak soilik onartuko dira, eta lanak gehienez lau orrialdekoak izango dira. Idazlanen hiru kopia bidali behar dira, urriaren 24a baino lehen, helbide honetara: Gaba Beltza 2. Herio Ipuin Laburren Lehiaketa, 111 posta kutxa, 20830 Mutriku. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu eta Mutrikuko lan onenak 15.000. Argibide gehiagorako, 943-603533 telefono zenbakira deitu.

Egile berrientzako lehiaketa ■ Iruñea. Iruñeko Udalak antolatzen duen literatur lehiaketara narrazio laburrak, bertsopaperak, komiki eta olerki lanak aurkez daitezke. Urtero antolatzen du Udalak lehiaketa hau, eta aurreko urteetako oinarri berberak dira aurtien ere. Lan guztiak urriaren

Hatsaren Poesia Eguna 2000. Senpere

Izan olerkari

O Aurreko martxoan bezala, datorren urtean ere Hatsaren Poesia Eguna ospatu nahi du Hatsa elkarteak. Hori dela eta, beste olerki bilduma bat argitaratu nahi du -bilduma hori gero Euskal Herriko liburutegi guztietan dohainik banatuko da-. Horregatik, Hatsa elkarteak ondoko deia zabaldu du: Poesia idazten duten guztieri, ezagunak izan edo ez, bilduma horretan parte hartzeko deia egiten die, abenduaren 15a aurretik beren zenbait olerki (bat eta lau artean) eta argazki bat ondoko helbidera igor ditzaten: Hatsa elkarte, Oxtikenea, Fr64310 Senpere.



▲ Lutxi Fourcade

29a baino lehen aurkeztu behar dira, Iruñeko udaletxean bertan. Informazio gehiago nahi baduzue, telefono honetara dei ezazue: 948-222008

Hitzaldiak

Emakumearen astea ■ Donostia. Emakumearen garapena XX. mendean hitzaldia eskainiko du Ascen Martinez historiagileak. Larrotxeneko kultur etxean izango da 19:00etan.

Ikastaroak

Hainbat ikastaro ■ Donostia. Irratia, prentsa, soinu-edizioa, zermika, pintura, gitarrak, literatura eta bertsolaritza ikastaroak hasiko dira astelehenean, urriak 18, Alizako kultur etxean. Aliza irrati tailerra ere egun berean hasiko da. Informazio gehiago: 943-351149.

Arte adierazpena ■ Donostia.

Donostiako Udaleko Gazteria Sailak, Kontadores eta Martuteneko guneen bitartez, Arte adierazpeneko hainbat ikastaro antolatu ditu 1999-2000 ikasturteko lehen hiruhilekorako. Kontadoresen honako ikastaro hauek egingo dira: antzerkia I. (hastapenak), antzerki tailerra, antzerkirako makilajea, clown, gidoia, argazkigintza (hiru maila), komikia, jazz dantza eta dantza garaikidea. Martutenen txontxongilo ikastaroa eskainiko dute. Informazioa eta izen-ematea: 943.390122

Zenbat Gara ■ Bilbo. Bilboko Zenbat Gara elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte honetarako. Hauek dira ikastaroak eta hasiko diren egunak: bideoa (urriak 14), masajea (urriak 14), yoga (urriak 14), Urbeltzen dantza ganbara (urriak 20), bertso-gintza (urriak 14), kantagintza (urriak 27), bizkaiera (azaroak 27), sakontzen (azaroak 3) eta

itzulpengintza (azaroak 4). Informazio gehiago 94-4237591 telefono zenbakian.

IPendero ikastaroa ■ Lazkao. Goierriko Euskal Eskolak Eskolak pendero ikastaroa antolatu du. Urriaren 18tik 21era bitartean izango da, 15:00etatik 16:00etara, Maizpide euskaltegian. Ikastaroa 500 pezeta kostatzen da, eta izen ematea urriaren 15a baino lehen egin behar da, Lazkao Gerriko liburudendan. Telefonoa: 943-886500.

Aula Gazte ■ Ikasturte berrirako hamaika ikastaro antolatu ditu Gazte Kutxak. Word, Excel, multimedia, Internet, enpresa, lana, kurrikulumak, lan bilaketa, psikologia, musika, sukaldaritza, dantza, literatura, argazkigintza, altzarigintza, pintura eta beste hainbat gairen inguruko ikastaroak dira guztiak. 113 ikastaro dira denetara. Informazioa Kutxako sukurtsaletan lor daiteke.

Lana

Euskarabila elkarte ■ Basauri.

Basauriko Euskarabila euskara elkarteak egoitzan egun erdiz aritzeko pertsona bat behar du. Euskalduna eta euskaltzalea izate, harremanetarako erraztasuna eta bulego lana ezagutzea eskatzen da; eskaini, berriz, sei hilabeteko kontratua (luzatzeko aukerarekin), soldata interesgarria eta ordutegi malgua. Basauriko giroa ezagutzea ere kontuan hartuko da. Zuen datuak urriaren 29a baino lehen bidali behar dituzue helbide honetara: Euskarabila elkarte, 146 posta kutxa, 48970 Basauri.

Gizarte laguntzailea ■ Durango.

Durango Mankomunitateak Gizarte laguntzaile lanpostu baterako deialdia zabaldu du. Oinarriak Bizkaiko aldiakari ofizialean agertuko dira, 232. zenbakian. Eskariak urriaren 18a aurretik egin behar dira.

Deialdiak

Skunk Anansieren kontzerturako bideia ■ Donostia.

Skunk Anansier taldeak azaroaren 1ean Bergarako Jam aretoan eskainiko duen kontzerturako autobusa antolatu du Donostiako Frudisk denak. Autobusa 20:30etan itengo da Mirakruz 6-8ko dendatik, eta itzulera kontzertua amaitu eta ordu erdira izango da. Sarrearen prezioa 2.300 pezetakoa da, eta autobusarena 1.000 pezetakoa.